

opusdei.org

Japoniarekin bat eginda.

Kultur eta kirol trukea Japoniarekin.

2014 Mai 6

Martxoaren 25ean, asteartez, Kanagawako (Japonia) Schonan High Schooleko 51 ikasle Gazteluetan egon ziren. Bi hizkuntzetako Batxilergoko 1. urtekoberen kide direnekin kontaktua izan dute eta orain kultur trukearen azken fasea ospatzera etorri dira. Aurreko urteen esperientziari jarraituz, lehen hiruhilekoan Shima Beone irakaslea

ikastetxearekin harremanetan jarri
zen ekitaldia bultzatzeko.

Hilabete hauen bitarteko
prestakuntzaren harremanak
ikasleek egina izan da,
ingelesezguztia, eta koordinatzaileak
Joseba Martinez eta Shintaro
Nakamura izan dira, 17 urtekoak
biak. Epe horretan Japonia eta
Euskadiko kultura, ohitura eta gaur
egungo gertaerei buruzko jakin-
nahia partekatu dute. Japoniar
gazteek halako galderak egin dizkiote
bere kideei: Zein diren Euskadiko
gauza erakargarrienak, Japoniar
komikien ezaguera maila,
gaztediaren heroi erakargarrienak
edota datorren udan ospatuko den
futbolaren Munduko Txapelketarako
apustu nagusiak. Ikasle japoniarrak
futbol zale porrokatuak baitira.
Ekitaldiaren amaieran bi delegazioek
elkarren artean oroigarriak banatu
zituzten.

Truke-ekitaldiaren muina amaitu ondoren, gonbidatzaileek ikastetxearen instalazioak erakutsi zieten kide japoniarrei, talde txikietan sailkatuta: bost ikasle japoniar eta Gazteluetako bi bakoitzean. Argazki ofizialak egin ondoren, parte hartzaileak hurbileko jatetxe batera joan ziren bazkaltzera.

Arratsaldeak, berriz, kirol kutsua izan zuen bete-betean. Gazteluetako Batxilergoko 1.urteko selekzioak, Jaime Mattheus buru zuela, Schonaneko talde baten aurka jokatu zuen; beste talde japoniar bat Gobelako zelaira joan zen Arenas de Getxo taldearen aurka jokatzeko, eta hirugarren talde bat Lezamaraino Bilboko Athleticen gazte-talde baten aurka jokatzeko. Gazteluetako lagunarteko partida euria barra-barra ari zuela jokatu zen, tarteka ekaitza ere bai, baina hala ere jokatzeko gogoia ez zen gutxitu. Azkenean japoniar taldeak 3-2

irabazi zuen. Laburbilduz, kultur eta kirol trukearen azken fasea Shonan High Schooleko ikasleekin, beti gogoan izango dugun goi-mailako adiskidetasun, kultura eta kirol jardunaldi bat izan zen.

pdf | document generated
automatically from [https://
dev.opusdei.org/eu-es/article/
japoniarekin-bat-eginda-2/](https://dev.opusdei.org/eu-es/article/japoniarekin-bat-eginda-2/) (2025 Abu
12)